

UDALETIK ZER BARRI?

Otsaila

OTXANDIO | 2017ko otsaileko bigarren hamabostaldia

1. Udal zergen ordainketak

Hainbat herritarrek udal zergak ordaintzeko deukiezan estatusunak jakinda, Udaletik hainbat aukera eskeintzen dira ordainketak ahal dan neurrian errazteko. Beste kasuetan, zorrak Aldundiaren bitartez kobratzeari ekingo zaio.

2. Egutero da martxoak 8, Gora Emakumeen borroka!

Emakumeen Nazioarteko Egunean, emakume eta gizonezkoen berdintasunaz gain, jendarte eredu parekide baten aldarrikapena egiten da. Otxandion hainbat ekimen burutuko dira: antzerkia, murala, tailerra... Parte hartu!!



3. Eraso matxisten aurrean... AUTODEFENTSA!!

Emakumeentzako autodefentsa feminista tailerra prestatu dute Bagaizan taldeak eta Otxandioko Udalak. Tailerra martxoaren 17, 18 eta 19an izango da. Deitu udaletxera izena emateko martxoaren 10a baino lehen!

4. Haizetiekin jausitako arbolak

Gogoratu arbol hauek egurre egiteko interesa daukenak Udaletxean izena emon behar dauela. Bestalde egur sortak laster zozketatuko dira eta sortak eskatzen dabezan danek zuhaitz egunien parte hartu beharko dute.



5. Estatuko Segurtasun Indarren erretiratzea

Euskal Herria, Europako polizia eta indar armatu ratorik altuena duen herria da. Hori horrela, Otxandioko Udalak aho batez Policía Nacional, Guardia Zibil eta Armadaren errepliege osoa aldarrikatzen du.

AGENDA

Otsailak 25

Inauteriak: Kalejira, pregoia, bazkaria, DJ... (Guraso Elkarteak)

Martxoak 4 / 09:30 / Plazan

Zuhaitz eguna

Martxoak 5, 8 eta 17

Emakumeen Nazioarteko Eguna (Bagaizan)